

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko hurrengo jardueran ezinbestekoak izango dira:

- **1.PLANGINTZA ESTRATEGIKOA.** Lehenengo helburuak ezarri behar doguz enpresaren helmuga eta nora joan daiten jakiteko. Jarduera aipagarrienak honek dira:
 - Aplikazioa sortu (guk sortutakoa)
 - Beharrezko den finantzaketa lortu
 - Bezeroak lortu
 - Gida-afin trioak lortu
 - Iragarkiak jarriko dituzten enpresak lortu
 - Komunikatzeko sare sozialak kudeatu
 - Aplikazioa (Apple store, Play Store)
 - Langileak lortu
- **2. FINANTZA KUDEAKETA.** Ekonomia osasun bat eukiteko, diru-sarrera eta gastuen kontrol zorrotza eukitea ezinbestekoa da, aurrekontutik zenbat diru sartzen eta irtetzen dan jakiteko. Beharrezkoa bada, bankuari kredituak eskatzea ondo etorriko zitzaigun.
- **3.PRODUKTUEN EDO ZERBITZUEN GARAPENA.** Gure produktua merkatuaren beharrei egokitzea, hau da, merkatuaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuz gure produktua horren arabera eguneratu ahal dogu etekinak maximizatu daitezkan. Merkatu berrietan sartzeko ahalmena be ezinbestekoa da eta kontuan hartuko dogu gure produktua eguneratzerakoan.
- **4.BEZEROEN ETA MARKETINAREN KUDEAKETA.** Bezeroak erakartzeko marketin kanpainak ezinbestekoak dira. Gure publizitatea sare sozialetan (TikTok eta

Instagram) nabarmena izango da, etorkizunean sare sozialak oso garrantzitsuak izango diralako.

- **5. EKOIZPEN-BALIABIDEAK LORTU.** Gure proiektua aurrera atera ahal izateko hainbat ekoizpen-baliabideak beharko ginatekez. Lehenik eta behin, lokal baten alokairua ordaindu bulegoak eukiteko. Eta azkenik, lan egin ahal izateko ordenagailuak,altzariak, mugikorrak...